

# Lehen gazte-eguna ospatuko da Ermuan uztailearen 26an

**Gazte Asanbladak antolatutako ekimenak goizean goiz hasi eta gauera arte luzatuko dira, Santa Anako parkean. Giro alternatibo eta euskalduna sortzea da helburua eta tartean, txosna, haurrentzako jolasak, herri bazkaria, bingoa eta karaoke lehiaketak egingo dira. Egunari amaiera emateko Katekesixe, Yaw eta Noraezean taldeek kontzertua eskainiko dute.**

16 eta 25 urte bitarteko 20 neska mutilek osatzen dute Gazte Asanblada eta duela 4 hilabete inguru hasi ziren Ermuko I. Gazte Eguna antolatzeko lanetan. Iazko arazoak ikusita, aurten Gazte Asanbladak ez zuen txosnarik ipintzeko asmorik, baina "bat-batean" Udalaren mezu elektronikoa jaso zuten, euren asmoen berri izan nahi baitzuten. "Egia esan, ez genuen pentsatuta herrian jada txosna-gunea lortzea -diote gazte hauek-. Baina ustekabean Udalak or-

denantza aldatu eta baldintzak leundu ditu eta gu segituan hasi ginen lanean, marxoa inguruan".

Azken hilabeteotako lanari esker, goizetik gauera arteko egitaraua osatu dute, ez zutelako nahi jendea "goizean lotan egon eta arratsalde-gau partean bakarrik irtetea", eta adin guztietarako ekitaldiak izango dituzte, umeentzako jolasekin hasiko baitira eta herri bazkarian helduagoak ere parte hartzea espero dutelako, "denontzako giroa sortuz".

Izan ere, Gazte egunaren helburua giroarekin lotuta dago: "Giro alternatibo eta euskalduna sortzea da gure helburua. Betidanik tabernak eta DJak izan ditugu eta lagun asko jaietan lokaletan sartuta egoten da. Guk elkar-giroa sortu nahi dugu".

#### Etekin ekonomikoa

Hasiera batean, jaietako 4 egunetan txosna-gunea zabalik izatea pentsatu zuten, baina "diru aldetik ez zela ondo irtengo ikusi" eta egun bakarra egitea erabaki zuten. "Aurtengoa nola doan ikusita, datorren urtean 4



egunetara zabaltzea balartuko dugu", diote. Eta hori lortzeko, herriko elkarteak ere horretan inplikatzeko ezinbestekotzat jotzen dute. "Batzuek txosna ipintzeko asmoa izan dute aurten, baina esan diegunean aurten ez dela etekin ekonomikorik egongo eta ateratzen dugun dirua datorren urtekoa antolatzeko izango dela, atzera egin dute", argitzen du Gazte Asanbladak. Irailetik aurrera, baina, herriko elkarteekin lanean hasi eta 2014rako txosna-gune handiagoa sortzeko asmoa dute. Hori baita finean euren nahia eta ez daude batera ados azkenaldian 'Ermua Opina' bezalako sare sozialetan euren inguruan komentatzen ari den guztiarekin. "Jendeari asko gustatzen zaio jakin barik hitz

egitea. Komentatu izan dute gazteek ez gaudela jaietan lan egiteko prest eta horregatik zabalduko dugula bakarrik egun bat -salatzen dute-. Ez da egia. Diru kontua dela azpimarratu nahi dugu. Eguna ondo prestatu eta ondo irtetea nahi dugu, ez desastre hutsa izatea".

Gazte Asanbladaren mugimendua 2006an sortu zuen Ermuko beste gazte talde batek. Proiektuak urte batzuk igaro ditu erdi baztertua eta duela denboratxo bat, lanari ekin diote beste gazte batzuek. Gazte Eguna izango da antolatzen duten lehen ekimena baina, irailetik aurrera eta, oraindik zehaztasun asko eman ezin duten arren, ikastaroak eta mendi-irteerak antolatzeko asmoa dute.

Dorleta Vidal

**Ermuko GAZTE eguna 26**

**Egitaraua**

- 11:30 umeentzako jolasak
- 13:30 Gazte Asanbladaren harrera eta brindisa
- 14:30 Herri bazkaria
- 16:30 Karnoken eta bingo partida
- 17:30 Andrabanda
- 18:30 Olinpiadak

**22:00 kontzertuak**

**Txosna egun osoan zehar!!**

Bazkariak, txakak, lotzeak eta txalaparta tabernak

ERMUKO GAZTE ASANBLADA

**mari asun**

LORADENDA

Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 beheak · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia